



Nik, M^a JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK,

EGIAZTATZEN DUT:

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2011ko uztailaren 26an eginiko bilkuran, besteak beste, honako Akordioa hartu zuela:

ERABAKI-PROPOSAMENA, 2009-2013 LEGEGINTZALDIKO LEGEGINTZAKO EGUTEGIAREN SEI HILEAN BEHINGO JARRAIPENA (2011KO LEHEN SEIHILEKOA) EGITEKO DOKUMENTUA ONARTZEN DUENA.

2009ko azaroaren 17an, 2009-2013 IX. Legegintzaldiko Legegintzako Egutegia onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

Gobernu Kontseiluaren Erabakiak agintzen duenez, Jaurlaritzako sailek txosten bat bidali behar diote sei hilean behin Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari, Legegintzako Egutegian ezarritako konpromisoak zenbateraino bete diren eta, hala bada, aldatu egin diren azaltzeko eta, hartara, haren jarraipena eta ebaluazioa egitea errazagoa izateko.

Agindu hori betez, Eusko Jaurlaritzako sailek 2011ko lehen seihilekoan onartzekoak ziren 21 lege-proiekturi buruzko informazioa helarazi diote Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari: proiektu horietako batzuk hasiera batetik ziren 2011ko lehen seihilekoan onartzekoak, Gobernu Kontseiluak Legegintzako Egutegia onartzeko erabakiarekin bat, eta beste batzuen onspena, berriz, 2011ko lehen seihilekora arte atzeratu zen, prestakuntza-prozesuan izandako gorabeheren ondorioz; alde horretatik, aurreko jarraipen-dokumentuek argi eta garbi adierazten zituzten horrelako gorabeherak.

Sailek helarazitako informazioaren arabera, Gobernu Kontseiluak hamahiru lege-proiektu onartu ditu 2010eko abenduaren eta 2011ko uztailaren artean: Legegintzako Egutegiaren arabera 2011ko lehen seihilekoan onartzekoak ziren hamabi eta 2012an onartzekoa zen bat. Hauek izan dira onartutako lege-proiektuen sustatzaileak: Herrizaingo Saila; Ekonomia eta Ogasun Saila; Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila; eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Sailek helarazitako informazioaren arabera, lau lege-proiektu Legegintzako Egutegitik kanpo gelditu dira: 2011ko lehen seihilekoan onartzekoak ziren hiru eta 2011ko bigarren seihilekoan onartzekoa zen bat. Izan ere, dagoeneko ez da egokia lau lege-proiektu horiek plangintza-tresna horren (Legegintzako Egutegiaren) barnean egotea, egungo krisialdi ekonomikoa dela-eta batez ere. Azken batean, lege-proiektuen lehentasuna finkatzera eta lege-proiektuak arrazionalizatzerara behartzen du krisiak, eta, ildo horretan, jardun publikoaren sektoreek krisiari aurre egiteko arauzko xedapenak onartzera eta administrazioak bere baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko bideak bilatzera.

2011ko lehen seihilekoan onartzekoak ziren 21 lege-proiektuetan seiren egoerari buruzko informazioa ere helarazi dute sailek, eta, hortaz, pentsatzekoa da onspena atzeratu egingo dela.

Bestalde, aipatutako krisialdi ekonomikoaren esparruan, adierazi berri dugun helburua lortzearen, sailek sei lege-proiektu berri prestatu dituzte, helarazitako informazioaren arabera. Lege-proiektu horiek prestatzea eta onartzea bat dator legegintzaldi honetarako programako dokumentuekin, baita euskal gizarteari gai espezifiko jakin batzuei buruzko araudi berriak ematearekin ere. Hain zuzen ere, hauek dira gaiok: Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea, emakume nekazarien estatusa, Euskara Ziurtagirien eta Tituluen Erregistro Bateratua sortzea eta arautzea, lurzorua ez kutsatzea eta kutsatutakoa garbitzea, eta euskal sektore publikoa eta gurtza-aretoak arautzea.

Eusko Legebiltzarrari helarazitako zaio Legegintzako Egutegiaren jarraipena egiteko dokumentu hau, gobernuaren legegintza-jardunerako tresna baita, Eusko Jaurlaritzak kudeaketa kontrolatzeko eta gardena dela ziurtatzea bultzatzearekin hartutako konpromisoaren esparruan.

Horrenbestez, Lehendakaritzaren proposamenez, eta aztertu ondoren, Gobernu Kontseiluak hauxe onartu du

ERABAKIA

Lehenengoa.- 2009-2013 Legegintzaldiko Legegintzako Egutegiaren sei hilean behingo jarraipena (2011ko lehen seihilekoko) egiteko dokumentua onartzea, Erabakiaren I. Eranskinek finkatzen dituzten baldintzetan.

Bigarrena.- Lege-proiektu hauek Legegintzako Egutegian sartzea:


- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Legearen proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Legearen proiektua.
- Gurtza-aretoen Legearen proiektua.
- Emakume Nekazarien Estatutuaren Legearen proiektua.
- Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea aldatzeko lege-proiektua.
- Euskara Ziurtagirien eta Tituluaren Erregistro Bateratua sortzeko eta arautzeko lege-proiektua.

Hirugarrena.- Lege-proiektu hauek Legegintzako Egutegitik kanpo uztea, Erabakiaren II. Eranskinek finkatzen dituzten baldintzetan.

- Berdintasunaren aldeko Emakumeen Euskal Kontseiluaren Legearen proiektua.
- Euskadiko kooperatibei buruzko 4/1993 Legea aldatzeko lege-proiektua.
- Etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko eta kultura arteko bizikidetasuna lortzeko lege-proiektua.
- Farmazia-sorospena antolatzeko lege-proiektua.

Laugarrena.- Erabakia eta eranskinak Eusko Legebiltzarrari helaraztea, gobernuaren jardunaren jarraipen egokia egin dezan, IX. Legegintzaldiko Legegintzako Egutegia onartzen duen 2009ko azaroaren 17ko Erabakiaren bidez Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoa betez."

Eta horrela jasota gera dadin eta beharrezko ondorioak izan ditzan, egiaztagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 28an, eta ohartarazten akordioa transkribatuta dagoen akta Jaurlaritzaren Kontseiluaren hurrengo bilkurara eramango dela, onartua izan dadin.





I. ERANSKINA

LEGEGINTZAKO EGUTEGIAREN JARRAIPENA 2011ko 1. SEIHILEKOA

1. LEHENDAKARITZA

1. Berdintasunaren aldeko Emakumeen Euskal Kontseiluaren Legearen proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 1. seihilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Legegintzako Egutegitik kanpo.

a.3) Legegintzako Egutegitik kanpo gelditzeko arrazoiak: Berdintasunaren Legeko 24.5. artikulua ez du agintzen Berdintasunaren aldeko Emakumeen Euskal Kontseilua legez sortu behar denik, baizik eta "emakumeek benetan eta modu askean parte hartzeko bidea eskaini" behar duela. Zenbait eredu aztertzen ari dira, gastu publikoa handitzea ez dakartenak. Botere publikoekiko mendekotasun-maila ezberdina da kasu batzuetan eta besteetan, baina inola ere ez da behar legerik haiek martxan jartzeko.

2. Zenbait lege Barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Direktibara egokitzeko, haiek aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 1. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko otsailaren 28an onartua eta, 2011ko martxoaren 21ean, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko ekainaren 14an onartua eta, 2011ko ekainaren 20an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

2. HERRIZAINGO SAILA

1. Euskal Herriko Poliziaren Legea laugarrenez aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 2. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an onartua.

a.3) Oharrak: Hasiera batean, Legegintzako Egutegiaren barnean zegoen proiektu hau, baina, 2010eko bigarren seihilekoko jarraipenaren ondorioz, "Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzeko lege-proiektua" izeneko lege-proiektu berri baten parte bihurtu zen. Azkenik, gaia sistematikoki arrazionalizatze aldera, ondorioztatu zen hasierako proiektuari (Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea laugarrenez aldatzeko lege-proiektuari) berriro heltzea zela onena.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzeko lege-proiektua.

- a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. seihilekoa.
- a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an onartua.

3. Larrialdiak kudeatzeko Legea aldatzeko lege-proiektua.

- a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 3. hiruhilekoa.
- a.2) 2011ko ekaineko egoera: Nahitaezko txostenak eta irizpenak prestatzen (Kontrol Ekonomikoko Bulegoa).
- a.3) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data: 2011ko 2. seihilekoa.

3. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1. Bizitza osoan ikasteko lege-proiektua.

- a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. hiruhilekoa.
- a.2) 2011ko ekaineko egoera: Nahitaezko txostenak eta irizpenak prestatzen.
- a.3) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data: 2011ko 3. hiruhilekoa.

2. Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Legearen proiektua.

- a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: Proiektu berria Legegintzako Egutegiaren barnean.
- a.2) 2011ko ekaineko egoera: Kotsultak egiten. Jendaurrean.
- a.3) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data: 2011ko 4. hiruhilekoa.

4. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

1. Osasun Publikoaren Euskal Agentzia sortzeko lege-proiektua.

- a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 2. hiruhilekoa.
- a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko apirilaren 5ean onartua eta, 2011ko apirilaren 8an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

2. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen Legearen proiektua.

- a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 2. seihilekoa.
- a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko uztailaren 26an onartua.

3. Partaidetutako erakundearen aurrekontuen araubideari eta kontrolari buruzko Legearen proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an onartua.

a.3) **Izen berria:** Lege-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Euskal Autonomia Erkidegoko kontrol ekonomikoko eta kontabilitateko Legea eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren Legea aldatzeko dena, gehienbat Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak partaidetutako edo finantzatutako erakundeak arautzeko.

4. Fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duen legegintza-dekretuaren proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. seihilekoa. Aurreko jarraipenaren ondorioz sartua Legegintzako Egutegiaren barnean.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko maiatzaren 24an onartua eta, 2011ko ekainaren 3an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren aldaketa.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko martxoaren 8an onartua eta, 2011ko martxoaren 14an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

5. JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1. Eusko Jaurlaritzako kideen eta euskal administrazio publikoetako goi-kargudunen interesen arteko gatazkak eta bateraezintasun-araubidea arautzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 2. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: 2011ko ekainaren 6an, Justizia eta Herri Administrazioioko sailburuak hasteko agindua emanda.

a.3) **Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data:** 2012ko 2. hiruhilekoa, Euskal funtzio publikoari buruzko lege-proiektuarekin bat etortzeko.

a.4) **Izen berria:** Kargu publikoen jokabide-kodea eta bateraezintasun-araubidea arautzeko lege-proiektua.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Legearen proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: Proiektu berria Legegintzako Egutegiaren barnean.

a.3) **Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data:** 2012ko 2. hiruhilekoa.

3. Gurtza-aretoen Legearen proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: Proiektu berria Legegintzako Egutegiaren barnean.

a.3) **Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data:** 2012ko 2. hiruhilekoa.

6. ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

1) Kable bidezko garraioaren lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusten duen data: 2011ko 2. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Negoziatzen, jendaurrean eta kontsultak egiten.

a.3) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data: 2012ko 1. hiruhilekoa.

7. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

1. Euskadiko kooperatibei buruzko 4/1993 Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 2. seihilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Legegintzako Egutegitik kanpo.

a.3) Legegintzako Egutegitik kanpo gelditzeko arrazoiak: Krisialdi ekonomiko batean murgilduta gauden honetan, sail sustatzaileak kontuan hartu ditu kooperatibak ordezkatzeko dituzten elkarten aldarrikapenak; alegia, krisialdi ekonomikoa gainditzea hartu behar dela alor honetako jardun publikoaren lehentasuntzat. Horrenbestez, lege-proiektua lantzeko arrazoi objektiboak dauden arte atzeratu du proiektua.

2. Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruhilekoa. Aurreko jarraipenaren ondorioz sartua Legegintzako Egutegiaren barnean.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko abenduaren 21ean onartua eta, 2010eko urtarrilaren 3an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

3. Etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko eta kultura arteko bizikidetasuna lortzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 2. seihilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Legegintzako Egutegitik kanpo.

a.3) Legegintzako Egutegitik kanpo gelditzeko arrazoiak: III. Immigrazio Planak finkatu duen helburu nagusia da immigrazioaren aldeko gizarte-itun bat egitea erakundeekin, elkarrekin eta gizarte-eragileekin. Hortaz, itunak zehaztuko ditu etorkinak gizarteratzeko eta kultura arteko bizikidetasuna lortzeko beharrezko aurrekontua eta neurriak. Era berean, itunak erabakiko du legerik behar ote den kultura arteko bizikidetasuna eta kultura-aniztasuna babesteko eta sustatzeko.

8. OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

1. Farmazia-sorospena antolatzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. seihilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Legegintzako Egutegitik kanpo.

a.3) Legegintzako Egutegitik kanpo gelditzeko arrazoiak: Lege-proiektu hau Legegintzako Egutegian sartzeko arrazoia izan zen farmazia-sektoreak herritarrei ematen dien zerbitzuaren eskuragarritasuna eta kalitatea hobetzea. Alabaina, Egutegia onartu zenetik gaur arte, errezeta elektronikoen proiektuan murgildu da farmazia-sektorea, eta, gainera, 4/2010 eta 8/2010 errege-dekretuak

indarrean sartu dira; hain zuzen ere, haien ondorioz, sendagai generikoen eta osasun-produktuen prezioak behera egin du, eta markako sendagaien prezioa % 7,5 jaitsi da. Horrez gain, EAEn sendagai generikoak kontsumitzea bultzatzeko neurriak hartu dira, eta horrek guztiak eragin ekonomiko handia izan du farmazia-sektorean (sendagaien garapenean, fabrikazioan, banaketan eta salmentan). Gainera, legediaren aldaketak eragin ekonomiko gehigarria izan du, katearen maila batean gutxienez.

Bestalde, herritarrek farmaziek ematen duten zerbitzua eskuratzeari dagokionez, Egutegia onartu zenetik gaur arte, ez da sumatu gizarteak farmazien kopurua handitzeko eskatu duenik eta ez da izan kexarik farmaziak oker banatuta egoteari edo urriak izateari buruz.

Horregatik guztiagatik, egoera berri honetan ez dagoenez gero jadanik lege-proiektu hau Legegintzako Egutegian sartzeko arrazoirik, egoki iritzi zaio legegintzaldi honetatik kanpo uzteari.

9. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1. Nekazaritza- eta elikagai-gintza-politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 1. seihilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an onartua.

2. Klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Gobernu Kontseiluak 2011ko maiatzaren 24an onartua eta, 2011ko ekainaren 17an, Eusko Legebiltzarrari helarazia.

3. Animaliak babesteko 6/1993 Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2011ko 1. seihilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: Nahitaezko txostenak eta irizpenak prestatzen.

a.3) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data: 2012ko 2. seihilekoa.

a.4) Izen berria: Animalien ongizatearen Legearen proiektua.

4. Emakume Nekazarien Estatutuaren Legearen proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: Proiektu berria Legegintzako Egutegiaren barnean.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: 2011ko maiatzaren 2an, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak hasteko agindua emanda.

a.3) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data: 2012ko 1. seihilekoa.

5. Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea aldatzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: Proiektu berria Legegintzako Egutegiaren barnean.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: 2011ko maiatzaren 27an, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak hasteko agindua emanda.

a.3) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data: 2012ko 3. hiruhilekoa.

10. KULTURA SAILA

1. Gazteen Euskal Legearen proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: 2010eko 4. hiruhilekoa.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: 2011ko ekainaren 2an, Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaren zain.

a.3) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data: 2011ko 2. seihilekoa.

2. Euskara Ziurtagirien eta Tituluen Erregistro Bateratua sortzeko eta arautzeko lege-proiektua.

a.1) Legegintzako Egutegiak Gobernu Kontseiluari helarazteko finkatzen duen gutxi gorabeherako data: Proiektu berria Legegintzako Egutegiaren barnean.

a.2) 2011ko ekaineko egoera: 2011ko ekainaren 15ean, Kulturako sailburuak hasteko agindua emanda.

a.3) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data: 2012ko 1. seihilekoa.

II. ERANSKINA

LEGEGINTZAKO EGUTEGIAREN BARNEAN SARTUTAKO LEGE-PROIEKTU BERRIAK

1. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Legea.

a) **Helburua:** Legearen helburuak dira, batetik, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Europako irizpideetara eta arauetara egokitzea eta, bestetik, kalitatea egiaztatzeko Europako erakundeenen berdinak izatea Agentziak erabiltzen dituen irizpideak eta prozedurak, baita publikoak eta gardenak ere, agentziek elkarren ebaluazio-prozesuak onar ditzaten.

Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da legezko araudia aldatzea, Agentziari buruzko lege espezifiko baten bitartez. Hartara, Agentziaren independentziari buruzko irizpidea beteko da, gobernu- eta ebaluazio-funtzioak bereizita egongo baitira, eta, gainera, Agentziaren eginkizuna finkatuko da; hain zuzen ere, Agentziaren eginkizuna da hezkuntza-agintarien aholku-organoa izatea goi-mailako hezkuntzaren kalitatea bermatzeko gaietan.

b) **Eragina:** Hasiera batean, lege-proiektu honek ez du ekarriko kostu ekonomiko gehigarririk, aurrekontua bideratu baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearen barnean.

c) **Parte-hartzaileak**

UNIBASQ Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia.

Euskal Herriko Unibertsitatea.

Deustuko Unibertsitatea.

Mondragon Unibertsitatea.

Unibertsitateko langileak eta ikertzaileak.

d) **Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data:** 2011ko 4. hiruilekoa.

2. JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Legearen proiektua.

a) **Helburua:** Lege-proiektu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko instrumentala antolatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa sinplifikatzea, arrazionalizatzea eta berriz dimentsionatzea.

b) **Eragina:** Hasiera batean, lege-proiektu honek ez du izango eraginik finantzetan.

c) **Parte-hartzaileak:** Administrazio publikoa.

d) **Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data:** 2012ko 2. hiruilekoa.

Gurtza-aretoen Legearen proiektua.

a) **Helburua:** Lege-proiektu honen helburua da gurtza-aretoak sortzeko eskubidea erabili ahal izan dadin bermatzea eta erlijio-gaietarako erabil daitekeen lurzorua onartzea edo esleitzea. Gurtza-aretoak modu neutralean arautzea da asmoa, gurtza errazteko eta lokalen segurtasuna eta osasungarritasuna eta herritarren ordena publikorako oinarritzko eskubideak bermatzeko baino ez.

- b) **Eragina:** Lege-proiektuak ez du izango batere eraginik finantzetan.
- c) **Parte-hartzaileak:** Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak.
- d) **Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data:** 2012ko 2. hiruhilekoa.

3. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Emakume Nekazarien Estatutuaren Legearen proiektua.

a) **Helburua:** Lege-proiektu honen helburua da Nekazaritza- eta elikagaigintza-politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeko 75. artikulua betetzea, zera agintzen baitu: "Nekazaritza-arloko euskal administrazioek Emakume Nekazarien Estatutua sortuko dute. Estatutu arau-emailea izango da, eta emakume nekazariei laguntzeko zein ekintza bultzatu behar diren arautuko du".

Asmoa da gizon-emakumeen arteko berdintasuna egiazkoa izatea nekazaritza-sektorean eta emakume nekazariak beren eskubideak erabili ahal izan ditzaten ziurtatzea.

- b) **Eragina:** Lege-proiektu honek ez du ekarriko zuzenean administrazio publikoaren gastua handitzea. Gizarte Segurantzara afiliatzeko laguntzak xedatuko ditu, baina, oraingoz, ez da zehaztu zer administrazio emango dituen eta zenbatekoak izango diren.
- c) **Parte-hartzaileak:** Nekazaritza-sektorea eta, bereziki, emakume nekazariak.
- d) **Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data:** 2012ko 1. seihilekoa.

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea aldatzeko lege-proiektua

a) **Helburua:** Lege-proiektu honen helburua da, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedurak arintze aldera, Legea egokitzea.

Beste helburu batzuk:

- Berriz mugatzea zer kasutan aplikatu behar diren lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedurak, betebeharrak malguagoak ezartzea lurzoru kutsatzeko arrisku txikia duten jardueren gainean eta lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedura sinplifikatzea.
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak zehazki mugatzea eta Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoruak kutsatutak hartzeko irizpideak eta estandarrak xedatzeko urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuaren edukira egokitzea haiei buruzko eranskina.
- Otsailaren 4ko 1/2005 Legeko eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuko prozeduren eta hirigintza antolatze tresnak onartzeko prozeduren arteko harremanaren ondoriozko arazo praktikoak ebaztea.

b) **Eragina:** Hasiara batean, aldaketa honek ez du izango eraginik 1/2005 Legea bideratzerakoan finkatutako aurrekontuan.

c) Parte-hartzaileak

- **Sektore pribatua:** lurzoru kutsa dezaketen jardueren titular diren enpresak eta partikularrak.
- **Partikularrak:** lurzoru kutsa dezaketen jarduerak egon diren lurren jabeak.

d) **Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data:** 2012ko 3. hiruhilekoa.



4. KULTURA SAILA

Euskara Ziurtagirien eta Tituluen Erregistro Bateratua sortzeko eta arautzeko lege-proiektua

a) Helburua: Lege-proiektu honen helburua da Euskara Ziurtagirien eta Tituluen Erregistro Bateratua sortzea eta arautzea.

- Administrazioa izango da Erregistroa, eta hizkuntza-politikaren gaineko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da; hark antolatuko eta kudeatuko du.
- Doako zerbitzu publikoa izango da, eta euskara-ezagutzak egiaztatzeari buruzko informazio ofiziala emango die administrazio publikoei eta herritarrei.

b) Eragina: Lege-proiektu honek 50.000 euroko eragina izango du finantzetan, Erregistro Bateratuari eutsiko dion sistema informatikoa diseinatzeko eta ezartzeko.

c) Parte-hartzaileak

- Administrazio publikoak. Erregistro Bateratua erabili ahaliko dute, eta informazio eguneratua izango dute beren zerbitzura dauden langileen edo lanpostuak betetzeko deitzen dituzten prozesuetako parte-hartzaileen euskara-ezagutzen egiaztapenari buruz.
- Herritarrak. Erregistro Bateratua erabili ahaliko dute, eta informazioa izango dute beren euskara-ezagutzen egiaztapenari buruz eta beren titulu edo egiaztagiriei Hizkuntzen Europako Erreferentziako Esparru Bateratuan dagozkien maileri buruz.

d) Gobernu Kontseiluari helarazteko aurrez ikusitako data: 2012ko 1. seihilekoa.